



HERNANI Abuztuak 22



Villabonako Otalarrea etxaldean aurkeztu zuten Plana, Gipuzkoako sagardogileekin batera.

[albisteak](#)//FORU ALDUNDIA ETA SAGARDOGILE

«Gipuzkoan egiten den sagardo guztia bertako sagarrarekin ekoiztea da helburua»

Sagarrondoan Landaketa Bultzatzeko Plana aurkeztu zuen Foru Aldundiak sagardogileen elkarteekin batera. Plan honekin espero dute «**sagardo**aren kalitatean salto esanguratsua ematea».

HERNANI ASTIGARRAGA

2016/08/03 00:00 Asteazkena

Sagardoaren Lurraldeak garrantzia berezia du gurean, bai ekonomiaren aldetik, baita kulturaren aldetik ere. Eta hori bultzatzeko, Plan berria aurkeztu zuen Foru Aldundiak uztailaren hasieran: Sagarrondoan Landaketa Bultzatzeko Plana, hain zuzen.

Sagardogileen elkarteekin adostutako Plana da, eta hori irudikatzeko, aurkezpenean izan ziren Ibon Aburuza, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko lehendakaria, eta Oihana Ganzerain, Sagardoaren Mahaia Elkartekoa.

Bertako sagarrak eta sagardoa, helburu

Ainhoa Aizpuru Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka diputatuak jakinarazi zuenez, «Gipuzkoan egiten den sagardo guztia bertako sagardoarekin egitea da helburua», hau da, «sagardoaren kalitatean salto esanguratsua ematea».

Bi konpromiso, Foru Aldundiak

Helburu hori lortzeko sagardogileekin adostutako Planean, bi konpromiso hartzen ditu Foru Aldundiak: batetik, baserritarrek nahiz sagardogileek beraiek egindako landaketa berriak diruz lagunduko dira. Bestetik, sagarra ekoizteko aproposak diren herri lurak bilatuko ditu, ekoizleei utzi eta beraiek landatu ditzaten.

Era berean, sagardogileek lursail horietan lortutako fruitua bertako sagarrarekin egindako sagardoa ekoizteko erabiliko dute, eta kalitate marka publikoen araudira egokitzeko konpromisoa hartu dute.

Batetik, landaketa berriak diruz lagunduko dituzte; bestetik, herri lurak bilatuko ditu, ekoizleei utzi eta beraiek landatu ditzaten.

300.000 euro baino gehiago, urtero

Foru Aldundiak azaldu duenez, lehenengo bost urteetako inbertsioa diruz lagunduko du, «sagarrondoak fruituak ematen hasten diren arte». Aurreneko kalkuluen arabera, «Gipuzkoako sagastiak bultzatzeko, urtero 300.000 euro baino gehiago bideratuko ditu Ekonomia Sustapena eta Landa Inguruneke sailak».

Horrez gain, landaketen inguruko hobekuntza, aholkularitza eta formazioa eskainiko dio sektoreari, Plan berriaren arabera.

Sagardoaren salmenta prezioak baxuak dira, eta ez dira produktuaren kalitatearekin proportzionalak

Hainbat aurrerapauso


Hasiera batean Foru Aldundiak egingo dituen inbertsioek beraien fruituak emango dituela uste du Ainhoa Aizpuru diputatuak: «Plana martxan jartzeak landaketen inguruan sortzen diren lanpostuen sorrera ekarriko du, erabilpenik gabeko landa eremuen biziberritzea ekarriko du eta sagardoaren ezberdintzean eta kalitatean aurrerapausoak emateko balioko du».

Gogoeta konpartitu bat Planaren oinarrian

Aurkezpenean Markel Olano Diputatu Nagusiak azaldu zuen Plan hau sagardoaren sektoreak bizi duen arazo endemiko baten inguruan egindako gogoeta konpartitu baten ondorio dela, eta jatorrian, kalitate handiko sagar gabezia dagoela.

Foru Aldundiko ordezkariak azpimarratu dute, gainera, azken urteotan asko geldotu dela sagasti

berrien landatzea, besteak beste, sagardorako sagarraren errentabilitate baxuarengatik. Izan ere, **sagardoa**ren salmenta prezioak baxuak dira, eta ez dira produktuaren kalitatearekin proportzionalak. yy




Izena*

Eposta helbidea*

Iruzkina*

Captcha*


reCAPTCHA

reCAPTCHA erronka ikusteko, eskuratu [onartutako arakatzaille](#) bat.

Bestela, orri hau ikusi beharko ez zenukeela uste baduzu, egiaztatu Internetera konektatuta zaudela eta kargatu berriro.

[Zergatik egin behar dut hau?](#)

Bidali

Aurreikusi



GEHIGARRI BEREZIA



HERNANI

Abuztuak 22

Puri-Purian

«Hemendik aurrera, etxean ... (1)

Herri bilgunea, datorren ... (1)

«Gertatutakoa akats larria ... (1)

Bultza, Hernani! Bultza, ... (1)

Joko Olinpikoen irekiera, ... (3)

Bandera Olinpikoa igoko ... (8)

Mugalariak gogoratzeko ekintzak, ... (1)

Lau puntuko plenoa ... (1)

Gida komertziala



Bilatu



Arriatzu

Gindilla garaia ere hemen da!

Iragarki merkeak

*ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;
iturgintza, elektrizitatea, pintura,
berogailuak, persianak... Seriotasuna.*

Telefonoa: 616886660

*Iñigo Royo Masajista. Masajea,
naturopatia, osteopatia, kinesologia,
reiki, homeopatia, akupuntura...
(Agustindarren plaza, 4)*

Telefonoa: 943332894

Gaur



29°

14°

Bihar



32°

20°

Etzi



33°

18°

[Aemet](#) eskaintako datuak

Azken argazkiak



Ergobiko festak 2016



Ergobiko festak 2016



Ergobiko festak 2016



Goizuetako Fiestak 2016



Goizuetako Fiestak 2016



Goizuetako Fiestak 2016

Azken bideoak



Hernaniko Gazte Olinpiadak 2016



Mahai ingurua, alkategaiekin



Korrika 19 - Hernani / Astigarraga



Korrika Txikia 2015



Uholdeak Urumea bazterretan



Hernanik 1000 urte

ARGITARATZAILEA



ZEIN GARA



KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120

Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714

E-maila: kronika@kronika.eus
astigarraga@kronika.eus
urumea@kronika.eus



LAGUNTZAILEAK



Legezko oharra